

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

Tolosako Udaletxean, 2014ko azaroaren 25ean, arratsaldeko 19:30tan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Ibai Iriarte San Vicente, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:30 horas del día 25 de noviembre de 2014, se reúne el Ayuntamiento Pleno, en Sesión Ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Ibai Iriarte San Vicente, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:

Ibai Iriarte San Vicente

Bertaratutako zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria
Hasier De los Rios Soraluze
Igor Ezenarro Balda
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Jon Koldobika Arsuaga Artola
Mikel Arreseigor Astibia
Ainhoa Etxeberria Aranburu
Olatz Peon Ormazabal

Jon Aldazabal Etxeberria
Miren Ezkiaga Etxezarreta
Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Nuria Carbonell Miranda
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Ez Bertaratua:

Rosa Maria Urkola Irigoyen

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Behin behineko Kontuhartzaitza:

Paulino Alonso Eraso.

1.-Ondorengo aktak onartzea:

2014ko urriaren 28ko Osoko Bilkurakoa.

1.-Aprobación de las siguientes actas:

Sesión Ordinaria de 28 de octubre de 2014.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

- | | |
|--|--|
| 2014ko azaroaren 7ko Ez ohizko Osoko Bilkura. | Sesión Extraordinaria de 7 de noviembre de 2014. |
| 2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:
2014ko urriaren 1etik 30era (2014/1.333-2014/1.497) | 2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:
Del 1 al 30 octubre de 2014 (2014/1.333 al 2014/1.497) |
| 3.- Batzorde informatiboen Lehendakari izendapenei buruz kontu ematea. | 3.- Dar cuenta del nombramiento de Presidentes de Comisiones informativas. |
| 4.- Iurramendi Egoitza. 1/2014 Kreditu Aldaketa. | 4.- Residencia Iurramendi. Modificación de Créditos 1/2014. |
| 5.- Tolosako Udalaren Adierazpen Instituzionala, Azaroaren 25 emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela eta. | 5.- Declaración Institucional con motivo del 25 de noviembre, día internacional contra la violencia hacia las mujeres. |
| 6.- Euskeraren eguna dela eta, ".EUS domeinuari bai!" buruz mozioa. | 6.- Con motivo del día del Euskera, moción sobre ".EUS domeinuari bai!" |
| 7.- Galde-erreguak | 7.- Ruegos y preguntas. |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

1.- Ondorengo aktak onartzea:

2014ko urriaren 28ko Osoko Bilkurakoa.

2014ko azaroaren 7ko Ez ohizko Osoko Bilkura.

1.- Aprobación de las siguientes actas:

Sesión Ordinaria de 28 de octubre de 2014.

Sesión Extraordinaria de 7 de noviembre de 2014.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

Ondoren, izenburuan aipatutako aktak, aho batez, **onartu** dira. Dena den, azaroaren 7koan, akatsa dagoenez, ordenantza fiskalen aldaketan, hondakin bilketari dagokionean, loredendak lehenengo taldean jarri ordez, bigarren goan jarri behar dira.

2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

**2014ko urriaren 1etik 30era
(2014/1.333-2014/1.497)**

2.-Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

Del 1 al 30 octubre de 2014 (2014/1.333 al 2014/1.497)

Alkatetzak, 2014ko urriaren 1etik 30era bitartean (2014/1333-2014/1497) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbazkideak jakinaren gainean geratu dira.

3.-Batzorde informatiboen Lehendakari izendapenei buruz kontu ematea.

3.-Dar cuenta del nombramiento de Presidentes de Comisiones informativas.

Idazkariak 1548/2014 Alkatearen dekretuaren berri eman du. Honek honela dio:

Tolosako Udaletxean 2014ko azaroaren 12an

IBAI IRIARTE SAN VICENTE Tolosako Udaleko Alkate-lehendakariak emana.

2011ko uztailearen 12an egindako plenoan izendapen hauek egin ziren:

- *INGURUMENA GARAPEN EKONOMIKOA MERKATARITZA ETA TURISMOA: Lehendakaria; Hasier de los Rios Soraluze.*
- *TOLOSALDEKO GANADU HILTEGI KUDEATZEKO MANKOMUNITATEA: Lehendakaria; Hasier de los Rios Soraluze.*
- *GIZARTE POLITIKAK ETA OSASUNA; Lehendakaria: Rosa Maria Urkola Irigoyen*
- *IURRAMENDI EGOITZA; Lehendakaria Rosa Maria Urkola Irigoyen*

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

- *PAREKIDETASUNA; Lehendakaria Rosa Maria Urkola Irigoyen*

Orain, Hasier de los Rios Soraluze eta Rosa Maria Urkola Irigoyen bere lanean baja egoeran daude.

Hori ikusirik,

ERABAKI DUT

Lehena.- *Rosa Maria Urkola Irigoyen kargutik kentzea hurrengo udal sozietate eta entitateetan:*

- *GIZARTE POLITIKAK ETA OSASUNA: Lehendakaria*
- *IURRAMENDI EGOITZA: Lehendakaria*
- *PAREKIDETASUNA: Lehendakaria*

Bigarrena .- *Hasier de los Rios Soraluze kargutik kentzea hurrengo udal sozietate eta entitateetan:*

- *INGURUMENA GARAPEN EKONOMIKOA MERKATARITZA ETA TURISMOA: Lehendakaria*

Hirugarrena.- Lore Agirre Zipitria zinegotzia hurrengo entitate hauetan izendatzea:

- *GIZARTE POLITIKAK ETA OSASUNA: Lehendakaria*
- *IURRAMENDI EGOITZA: Lehendakaria*
- *PAREKIDETASUNA: Lehendakaria*
- *INGURUMENA GARAPEN EKONOMIKOA MERKATARITZA ETA TURISMOA: Lehendakaria*

Laugarrena.- Izendapena berri hauek baja egoera bukatu arteko iraupena izango dute; beraz, hasierako titularrak baja egoera amaitzean berreskuratuko dute kendutako kargua beste erabakirik gabe.

Bosgarrena.- Ebazpen honen berri ematea aipatutako zinegotziei, batzorde informatiboei eta Udalbatzari. “

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4.-Iurramendi Egoitza. 1/2014 Kreditu Aldaketa.

4.-Residencia Iurramendi. Modificación de Créditos 1/2014.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

2014ko ekitaldiari dagokion lurreamendi Egoitzaren aurrekontuaren kreditu aldaketarako 1/2014 espedientea tramitatzen ari da. Espedientearekiko Ogasun batzordeak jaulkitako diktamenaren berri eman du Kontuhartzaileak.

Finantziatzeko baliabideak hauek dira, kapituluka:

OHIZKO OSOKO BILKURA

<p>1. GASTUKO GEHIKUNTZA PROPOSAMENA 1. PROPUESTA DE AUMENTO EN GASTO</p> <p>1.1. Gastu arrunta 1.1. Gasto corriente</p> <p style="padding-left: 20px;">1. Kap. Pertsonal gastuak Cap. 1 Gastos de personal</p> <p style="padding-left: 20px;">2. Kap. Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak Cap. 2 Compras bienes corrientes y servicios</p> <p style="padding-left: 20px;">4. Kap. Transferentzia arruntak Cap. 4 Transferencias corrientes</p> <p style="padding-left: 20px;">9. Kap. Mailegu amortizazioak Cap. 9 Amortización de préstamos</p> <p>1.2. Inbertsioa 1.2. Inversión</p> <p style="padding-left: 20px;">6. Kap. Inbertsio errealak Cap. 6 Inversiones reales</p> <p style="padding-left: 20px;">7. Kap. Kapital transferentziak Cap. 7 Transferencias de capital</p> <p style="padding-left: 20px;">8. Kap. Aktibo finantzarioak Cap. 8 Activos financieros</p> <p style="text-align: center;">GASTUKO GEHIKUNTZA PROPOSAMENA GUZTIRA: TOTAL PROPUESTA AUMENTO EN GASTO:</p>			
	53.500,00		
	18.900,00		
	0,00	72.400,00	
		0,00	72.400,00
		65.100,00	
		0,00	
		0,00	65.100,00
			137.500,00
<p>2. FINANTZAKETA 2. FINANCIACIÓN</p> <p>2.1. Kreditu-transferentziagatiko finantzaketa 2.1. Financiación por transferencias de créditos</p> <p>Gastu arrunta: Gasto corriente:</p> <p style="padding-left: 20px;">1. Kap. Pertsonal gastuak Cap. 1 Gastos de personal</p> <p style="padding-left: 20px;">2. Kap. Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak Cap. 2 Compras bienes corrientes y servicios</p> <p style="padding-left: 20px;">4. Kap. Transferentzia arruntak Cap. 4 Transferencias corrientes</p> <p style="padding-left: 20px;">3. Kap. Gastu finantzarioak Cap. 3 Gastos financieros</p> <p>Inbertsioa Inversiones</p> <p style="padding-left: 20px;">6. Kap. Inbertsio errealak Cap. 6 Inversiones reales</p> <p style="padding-left: 20px;">7. Kap. Kapital transferentziak Cap. 7 Transferencias de capital</p> <p style="text-align: center;">Kreditu-transferentziagatiko finantzaketa guztira: Suma financiación por transferencias de crédito:</p> <p>2.2. Kreditu gehiarrigatiko finantzaketa (diruzaintzako gerakina) 2.2. Financiación por créditos adicionales (remanente de tesorería)</p> <p style="padding-left: 20px;">Gehigarrien kredituak finantzatzeko 2.000.870.01 Financiación créditos adicionales 2.000.870.01</p> <p style="text-align: center;">Kreditu gehiarrigatiko finantzaketa guztira: Suma financiación créditos adicionales:</p> <p>2.3. Kreditu gaikuntzagatiko finantzaketa 2.3. Financiación por habilitaciones de crédito</p> <p style="text-align: center;">Kreditu gaikuntzagatiko finantzaketa guztira: Suma financiación por habilitación de créditos:</p> <p style="text-align: center;">FINANTZAKETA GUZTIRA: FINANCIACIÓN TOTAL:</p>			
	48.000,00		
	0,00		
	0,00	48.000,00	
		0,00	48.000,00
		0,00	
		0,00	0,00
			48.000,00
			65.100,00
			65.100,00
			24.400,00
	6		137.500,00

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

2014ko Sarrera eta Gastuen Aurrekontuen bilakaera, 1/2014 zenbakidun Kreditu Aldaketarako espedientea barne, ondorengo koadroetan laburtzen da kapituluka:

AZALPENA	HASIERAKO AURREKONTUA 2014	AURREKONTUAKO KREDITU ALDAKETAK	ALDAKETA			ALDATUTAKO AURREKONTUA 2014
			IGOERA	MURRIZKETA	GARBIA	
CONCEPTO	PRESUPUESTO INICIAL 2014	MODIFICACIONES CREDITOS PREVIAS	AUMENTO	DISMINUCION	DIFERENCIA	PRESUPUESTO MODIFICADO 2014
1 Kap. Pertsonal gastuak Cap. 1. Gastos personal	1.652.000,00	0,00	53.500,00	48.000,00	5.500,00	1.657.500,00
2 Kap. Ondasun eta zerbitzuen erosketak Cap. 2. Compras bienes y servicios	3.295.750,00	0,00	18.900,00	0,00	18.900,00	3.314.650,00
3 Kap. Gastu finantzarioak Cap. 3. Gastos financieros	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
4 Kap. Transferentzia arruntak Cap. 4. Transferencias corrientes	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6 Kap. Inbertsio errealak Cap. 6. Inversiones reales	0,00	0,00	65.100,00	0,00	65.100,00	65.100,00
7 Kap. Kapital transferentziak Cap. 7. Transferencias capital	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
8 Kap. Aktibo finantzarioak Cap. 8. Activos financieros	142.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	142.000,00
9 Kap. Maileguen amortizazioak Cap. 9. Amortizaciones préstamos	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA TOTALES	5.089.750,00	0,00	137.500,00	48.000,00	89.500,00	5.179.250,00
TXERTATUTAKO KREDITUAK CREDITOS INCORPORADOS	0,00	0,00	0,00	0,00		0,00
GASTUAK GUZTIRA TOTAL GASTOS	5.089.750,00	0,00	137.500,00	48.000,00	89.500,00	5.179.250,00

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

Beraz, 1/2014 espedientearen aurrekontu partiden kreditu igoeren proposamenak eta finantzatzen dituzten errekursoak aztertu ondoren, eta kontuan izanik gastuaren premiazko beharra eta igoerek finantzatzen dituzten errekursoen efektibotasuna nahikoa egiaztatzen dela, eta kreditu aldaketa honek aurrekontuaren garapena arindu eta zerbitzuaren kudeaketa hobetu egingo duela.

Ikusiz Kontuhartzaileak egindako txostena, non adierazten den aipatutako espedienteari aplikagarria zaion legezko araudia eta hau egokitzen zaiola; eta ez duela osotasunean betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua.

Hortaz, Ogasun batzordeak jaulkitako aldeko diktamena aztertutik, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU :

Lehena.- lurramendi egoitzaren 2014ko aurrekontuari dagokion 1/2014 kreditu aldaketa haseraz onartzea.

Bigarrena.- Erreklamatzeko aukera egon dadin, espedientea hamasost egun jendaurrean jarrita edukitzea. Erreklamaziorik ez badago, erabakia hau behin betikoa izango.

Laugarren.- Era berean, Udalbazkideak jakinaren gainean geratzen dira Kontuhartzaileak helarazitako finantza iraunkortasuna ebaluatzeko txostenarekin (eranskin gisa aktari laguntzen zaio).

**5.-Tolosako Udalaren Adierazpen
Instituzionala, Azaroaren 25 emaku-
meenganako indarkeriaren kontrako
nazioarteko eguna dela eta.**

**5.-Declaración Institucional con motivo
del 25 de noviembre, día internacional
contra la violencia hacia las mujeres.**

Parte hartzeak:

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar: *“Ezer berririk ez honi buruz esateko. Urteroko adierazpena da. Espero dut adierazpen hau inoiz gehiago beharrezkoa ez izatea eta azaroaren 25a beste gauza bati dedikatu ahal izatea. Estadistikak hor daude, bai estatuan, bai komunitate autonomikoan, bai Gipuzkoan. Kasuak salatzen dituzten emakumeek ez dezatela beldurrik eduki, biolentzi horren eragilea zigortua izan dadin. Modu askotako biolentzia dago; gaur,*

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

adibidez, prentsan dator kate haundiko supermerkatu batek atera duen gabonetako propagandan emakumea agertzen dela etxeokandrea bezala. Jarrera horrekin sortzen dira biolentzia, matxismoa eta horrelako gauzak.”

... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSEE-PSOE: *“Datu batzuk gogoraraztea ez legoke gaizki. Azken 10 urtetan 33 emakume hil dira indarkeri matxistaren ondorioz Euskadin, eta Estatu mailan, 700 baino gehiago. Estadistikakin jarraituz, Euskadin bizkarzainarekin 5.000 emakume bizi dira eta aurten, indarkeria matxistari dagokionez, 1.020 salaketa jaso dira Gipuzkoan. Hau eguneroko lana da, eta badago lana egiteko.”*

... Olatz Peon Ormazabal, EAJ/PNV: *“Diskriminazioaren adierazpenik larriena delako, emakume izanagatik emakumeen kontra egiten diren bortxakeria adierazpen guztiak, gure gaitzespenik sendoena adierazi nahi dugu.*

Emakumeen segurtasuna, askatasuna eta gaitasunaren kontra egiten duelako. Gizartearen kontra. Gure gizartean, zoritxarrez oraindik badaude halako jokaerak. Rol eta estereotipoetatik libre, emakume eta gizonen artean harreman afektibo eta sexualak eraikitzeke moduan aldaketa sakonak eman beharko dira.

Zentzu honetan, aurten ere, gure babes osoa adierazi nahi diogu Emakunde erakundeak euskal udalerrien Berdinsarea Sarearen markoan eta EUDEL en eta hiru Foru Aldundien babesarekin antolatu ohi duen Beldur Barik egitasmoari, gazteen artean bortxakeria matxistaren inguruan egin behar den sentsibilizazio eta prebentzio lanerako tresna baliagarri eta beharrezkoa delakoan.

Horrela ba, EAJ-PNVren aldetik ez diogu uko egiten emakumeen kontrako bortxakeriaren alorrean dagokigun ardura sozial eta politikoari. Lehenengo eta behin, norbanako gisa gure eguneroko aurreiritziak, jarrerak eta portaerak berraztertzeke egin behar dugun ariketatik hasita. Gauzak aldatzeke dugun ardura geureganatzen eta aitortzen dugu, eta ez dugu onartuko bortxakeriaren aurrean permisibitate txikiena erakutsiko duten diskurtsorik, ez eta emakumeen kontrako erasoak eta diskriminazio jarrerak justifikatuko edo banalizatuko duten adierazpenik ere.

Bestalde, komentario txiki bat: zabor bilketan zabaldu den triptikoan azalean agertzen da neska panpoxa bat zaborrak botatzen. Uste dut gauza hauek zaindu beharko lirakekeela edo berdintasun departamentutik pasa beharko luketela kaleratu aurretik.”

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea: *“Beste azaroaren 25 bat datorkigu. Biolentzi kasuak daude, zenbait emakumek jasotzen duten egurra. Baina egunero kasu sutilagok ditugu, emakumea bigarren mailako hiritarra izatera ematen dutenak. Zentzu horretan izugarritzko lana dago egiteko egunerokoan eta denak elkarrekin. Oinarrizko gizarte batean, gizarteak dituen oinarri edo zimentutatik hasi behar da gauzak aldatzen. Ez da posible gaez neskak edo emakumeak*

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

beldurrez egotea etxera joateko, hori bortxa da! Ez da soilik bortxakeria gizonak emakumeari eskua jartzen dion momentutik. Hori ere bada. Baina askoz sutilagoak diren beste biolentzia mota batzuk ere badaude. Zentzu horretan genero betaurrekoak jarri behar ditugu. Ez da posible gaur egun bildurtuta bizitzea. Izan dadila azken eguna egiten duguna egun hau. Indarkeriari tolerancia 0. Pozten naiz denok bat egotea kasu honetan.”

Jarraian mozioa irakurri da. Honek honela dio:

Azaroaren 25 “Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna” dela eta, Tolosako Udalak bere gaitzespen sendoa erakusten du indarkeria sexistako adierazpen ororen aurrean. Adierazpen horiek gizonen eta emakumeen arteko berdintasun ezaren fruitu dira, eta zeharka sustatzen dira oraindik gaur egungo gizartean dauden ohitura eta jarrera negatiboen bitartez. Era berean, Tolosako Udalak azpimarratu nahi du beharrezkoa dela norabide horretan sakontzea, herritarren eta politikan aritzen direnen adostasun eta konpromisoaren bitartez.

Nahiz eta gizonen eta emakumeen arteko harremanetan urrats garrantzitsu batzuk eman diren, oraindik asko dago eginkizun. Atzerapen ikusgarri bat nozitzen ari gara indarkeria sexistaren aurkako borrokan, eta hori islatzen da hilketa-

Con motivo del 25 de noviembre, “Día internacional contra la violencia hacia las mujeres”, el Ayuntamiento de Tolosa muestra su firme repulsa a todas las expresiones de violencia sexista, que son fruto de la desigualdad existente entre mujeres y hombres y que se fomentan indirectamente a través de las costumbres y las actitudes negativas todavía presentes en la sociedad actual. Asimismo, el Ayuntamiento de Tolosa quiere subrayar la necesidad de profundizar en esa dirección, mediante el acuerdo y el compromiso de la ciudadanía y de quienes ejercen la política.

Aunque se han dado pasos importantes en las relaciones de mujeres y hombres, todavía queda mucho por hacer. Sufrimos un retroceso visible en la lucha contra la violencia sexista, que se refleja en el número creciente de asesinatos, incluso en el

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

kopurua gora doanean; izan ere, gure inguru hurbilekoenean ere, ikusten da gora egin duela emakumeek salatutako festa-esparruetako sexu-erasoen kopuruak.

Espainiako estatuan, CEDAW itzal txostenean jasotzen den bezala, Genero Indarkeriaren kontrako Lege Organikoaren 10. urteurrenean arreta osoko zerbitzuen murrizpen bat gertatu da, gutxitze bat baliabideen kalitatean, neurri berezien falta bat babesik gabeko sektoreetako emakumeentzat eta, azkenik, aipatutako legearen eta gaiaren gaineko politika publikoen ebaluazio eskas bat.

Atzerapen hau gertatzen ari da giro sozial, legezko, mediatiko eta ideologiko batean. Ezin ditzakegu begiak itxi errealitate honen aurrean: eraso eta jarrera sexistak dira emakumeen kontrako indarkeria permititzen duen gizarte baten adierazle bat. Permisibitatea elikatzen da erakunde batzuen gelditasunaz, jarduerarik ezaz, indarkeria sexista hutsaren

entorno más cercano, se observa un incremento de las agresiones sexuales denunciadas por las mujeres en los ámbitos festivos.

En el estado español, tal y como se recoge en el Informe sombra de la CEDAW, en el 10º aniversario de la Ley Orgánica contra la Violencia de Género, se ha producido una reducción de los servicios de atención integral, una merma en la calidad de los recursos, una ausencia de medidas especiales para las mujeres de sectores especialmente desprotegidos, y una insuficiente evaluación de la citada ley y de las políticas públicas al respecto.

Este retroceso se produce en un ambiente social, legal, mediático e ideológico. No podemos ignorar que los ataques y comportamientos sexistas son parte de una sociedad permisiva con el ejercicio de la violencia contra las mujeres. La permisividad se alimenta de la inacción de algunas instituciones, de las declaraciones públicas que banalizan la violencia sexista o cuestionan la

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

hurrengotzat jotzen duten edo neskek eta emakumeek jarritako salaketen egiazkotasuna dudan jartzen duten adierazpen publikoez zeinek auzitegiek emandako datuak alde batera uzten dituzten. Era berean, nabarmentzeko modukoa da emakumeen kontra sare sozialetan piztutako agresibitatea eta komunikabideetan indarkeriari ematen zaion trataera arin eta sentsazionalista. Permisibitate-giro honetan sortzen dira "mikromatxismoak" ere, hau da, gizonen eguneroko jokabide sotilak emakumeak kontrolpean eta beren boterearen mende edukitzeko.

Ildo horretatik, kontsentsu sozialak sustatzeko lehentasuna du lidergo instituzional eta politiko bat bermatzeak. Beharrezkoa da politika instituzional bereziak sustatzea eta haiek gauzatzeko baliabide aski izatea. Beharrezkoak dira, orobat, kaleetako errebindikazioak, iritzi publikoa eta jardunbide onak sortzea eta, baita ere, komunikabideetan eta sare sozialetan adierazpen sexistak gogor salatzea.

veracidad de las denuncias interpuestas por chicas y mujeres, obviando los datos proporcionados por las instancias judiciales. Del mismo modo, cabe destacar la agresividad verbal contra las mujeres desatada en las redes sociales y el tratamiento frívolo y sensacionalista de la violencia en los medios de comunicación. En este clima de permisividad también se desarrollan los "micromachismos", esto es, las conductas cotidianas y sutiles de control y abuso de poder de los hombres sobre las mujeres.

En esta dirección, es prioritario garantizar un liderazgo institucional y político para la promoción de consensos sociales. Es necesario promover políticas institucionales específicas con recursos suficientes para implementarlas. También se hacen necesarias las reivindicaciones en las calles, la generación de opinión pública y buenas prácticas así como la denuncia contundente de las expresiones sexistas en los medios de comunicación y las redes sociales.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

Beraz, garrantzitsua da emakumeek jasaten duten indarkeria gaitzestea zeren urratzen baititu giza-eskubideak eta funtsezko askatasunak zeinak oinarrizkoak diren lagundu nahi badugu eredu kulturala aldatzen, hau da, herritarren kontzientzia eta egitura familiar, sozial eta politikoetan eragin ahal izateko beharrezkoak diren jarrera eta balioak aldatzen.

Hori denagatik, emakumeei indarkeria matxistarik gabe bizitzeko duten eskubidea bermatzearen, Udal honek honoko konpromiso hauek hartzen ditu:

- Kanpaina publikoak sustatzea helburu honekin: hiritarren kontzientzia aktibo bat eta giro ez-permisibo bat sustatzea indarkeria zein bazterketa matxistaren edozein agerpenaren aurrean, tokiko komunikabideekin elkarlanean eta erabilera ez sexista eta errespetuzkoa sustatuz sare sozial, whatsApp, facebook, twitter, eta abarretan.
- Segitzea emakumeenganako indarkeriaren kontrako protokoloa

Por tanto, es importante condenar la violencia que sufren las mujeres, ya que vulnera los derechos humanos y las libertades fundamentales, que son la base para contribuir al cambio del modelo cultural, de actitudes y de valores necesarios para poder incidir en la transformación de las conciencias ciudadanas y en las estructuras familiares sociales y políticas .

Por todo ello, para que a las mujeres se les garantice su derecho a vivir libres de violencia machista, este Ayuntamiento adopta los siguientes compromisos:

- Promover campañas públicas con el objeto de favorecer una conciencia ciudadana activa y alimentar un clima no permisivo en contra de cualquier manifestación de violencia y discriminación machista, trabajando con los medios de comunicación local, e inculcando un uso no sexista y respetuoso de las redes sociales, whatsApp, facebook, twitter, etc.
- Seguir trabajando y reforzando el protocolo contra la violencia hacia las

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

lantzen eta indartzen, erakundeen arteko lankidetzak hobetzeko eta euskarririk handiena eskaintzeko indarkeria hori nozitzen duten emakumeei eta beren familiei.

➤ Udalaren berdintasun-politikak indartzea, eta bermatzea Tolosako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III Planean jasotako neurrien garapen, segimendu eta ebaluazioan behar diren giza- eta diru-baliabideak.

➤ Jabekuntza Eskola indartzea, bertan parte hartzen duten emakumeek beren erremintak izan ditzaten eta beren harremanak eta sareak (gazteak, helduak, migratuak, e.a.) sendotzeko, desberdintasunei eta indarkeria matxistari aurre egin diezaien modu autonomoz.

➤ Prozesuak bultzatzen jarraitzea emakumeen partaidetza aktiboa defendatzeko erritu sinbolikoetan, festa-izaerako jardueretan eta eremu soziokultural guztietan.

➤ Indartzen jarraitzea, batetik, ikastetxetako ikasleei zuzendutako koedukazio-proiektua eta, bestetik, Beldur Barik eta Hi Haiz, Hi! Programak

mujeres para mejorar la coordinación interinstitucional y ofrecer el mayor de los apoyos a las mujeres y a sus familias que sufren esta violencia.

➤ Fortalecer las políticas municipales de igualdad, garantizando los recursos humanos y económicos necesarios en el desarrollo, seguimiento y evaluación de las medidas recogidas en el III Plan de igualdad de Mujeres y Hombres de Tolosa.

➤ Reforzar la Escuela de Empoderamiento para que las mujeres participantes dispongan de herramientas propias y consoliden sus relaciones y redes (jóvenes, mayores, migradas, etc.) para hacer frente de forma autónoma a las desigualdades y a la violencia machista.

➤ Seguir impulsando procesos para defender la participación activa de las mujeres en los ritos simbólicos y actividades de carácter festivo y en todas los ámbitos socioculturales.

➤ Seguir reforzando el proyecto de coeducación dirigido al alumnado de los centros de enseñanza, así como los

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

zeinetan, agresio-mota guztiak prebenitzeko helburuaz, hauek sustatzen baitira: berdintasunean oinarritutako sexualitatea, nesken jabekuntza eta mutilen papera berdintasunezko harremanen alde.

Azkenik, eskerrak eman behar dizkiegu gaurkorako deitutako mobilizazio eta ekintzetan parte hartu duten guztiei, mezu hau garbi adierazten dugularik: segituko dugula errebindikatzen emakume guztiak indarkeri-adierazpen guztietatik askatuak izan daitezela.

programas Beldur Barik y Hi Haiz, Hi! en las que se promueve la sexualidad cimentada en la igualdad, el empoderamiento de las chicas y el papel de los chicos a favor de las relaciones igualitarias, con el fin de prevenir toda clase de agresiones.

Por último, agradecer a todas aquellas personas que hayan participado en las movilizaciones y actos convocados para la fecha de hoy con el claro mensaje de que seguiremos reivindicando que todas las mujeres sean liberadas de cualquier expresión de violencia.

Jarraian, mozioa bozkatu egin da eta, aho batez, onartu da.

6.-Euskeraren eguna dela eta, .EUS domeinuari bai!” buruz mozioa.

6.-Con motivo del día del Euskera, moción sobre “.EUS domeinuari bai!”

Idazkariak mozioa irakurri du. Mozioak honela dio:

“Nekez uler daiteke XXI. mendearen bigarren hamarkada honetan Internetik gabeko mundua. Hizkuntzek eta kulturek agertoki hori behar dute osorik garatu eta bizirauteko. Euskarak ere, beste edozein hizkuntzak bezala, behar du amaraunean agertu, garatu eta zabaldu. Are gehiago, marka edo identitate-zeinu berariazkoarekin atera behar du sarearen plazara.

Internet-domeinu propioa izateak plazara egoki, dotore eta duintasunez jalgitzekoezinbestekoa dugu aro digitalean. Euskarak abian du jada, ‘.EUS’

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

domeinua; lehen mailako domeinua gainera! Bere helburua euskara eta euskal kultura sustatu eta Euskara eta Euskal Kulturaren Komunitatea kohesionatzea da. '.EUS', hortaz, tresna bat da, euskara beste hizkuntzen mailan kokatzen duena, euskararen normalizazioan lagunduko duena eta euskararen herriari nazioarteko aitortza eskaintzen diona.

Tolosako Udalak '.EUS' Interneteko Domeinuaren aitzindari izateko erabakia hartu zuen beste 91 erakunderekin batera. Horrexegatik 'www.tolosa.eus' da Tolosako udalaren webgunearen helbide berria. Tolosa euskararen hiria izan dadin aldarrikatzen ari gara eta Interneten ere horrela izatea nahi dugu.

Hori dela eta Tolosako udalak, 2014ko euskararen egunaren atarian, honoko erabakia hartzen du

1.-Animatzea eta bultzatzea Tolosako enpresak, eragileak eta erakundeak bat egin dezaten '.EUS' domeinuarekin.

2.-Eskatzea horiei guztei beren webguneak '.EUS' domeinukoak bihur ditzaten."

Jarraian, mozioa bozketara jarri eta onartu da Bildu, Aralar eta EAJ/PNV alderdiko zinegotzien aldeko botoekin eta PSOE alderdiaren abstentzioarekin.

Parte hartzeak:

- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar: "Bada esaera zahar bat horrela esaten duena: "Izena duena badela". Egia esan, interneten euskara bada. Euskarak tren asko galdu ditu berrikuntza teknologikoetan, kultura aldatetetan. Inprentara berandu iritsi zen, irratira ere bai, telebistara...Baina, interneteko trena garaiz hartu du. Horrela euskarak toki egokia du interneten. Eta adituak esaten dutenez, bere hiztun komunitatearen tamainari errepatuta, izan behar lukeena baino presentzi haundigoa du interneten. Beraz, orain izena jarri behar zaio izanari. Izen hori ".eus" da. Identidade bat eman nahi zaio. Bide horretan egokia ikusten dugu euskal hitzarekin lotura duen horiek eta euskararekin lotura duenak euskararen domeinuak betetzen dituenak erabil dezatela ".eus" domeinua. Azken finean, herri egiten du, nazio kontsideratzen du eta kultura kontsideratzen du. Animatzen ditugu Tolosarrak .eus domeinuaren alde egin dezaten eta erabil dezaten. Abenduaren 3tik aurrera libre egongo da ".eus" domeinua; edozeinek eska dezake."

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

...Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: “2007-8an mobimendu hau martxan jarri zen. Abenduaren 3tik llibre izango da “.eus” domeinua erabiltzea eta erregistratzea. Horrek aukera emango digu euskerak, beste hizkuntzen artean, munduan bere lekua izateko. Nire irudipena da zabalkunde haundia izango duela eta jendea animatu behar da luzapen hori jartzera.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea: “Tolosako udalari eskaini zitzaionean aintzindari izatea argi geneukan egon behar genuela, iraganean egon ginen bezala. Momentu honetan iruditzen zaigu bultzatzen jarraitu behar dugula eta sensibilizazio kanpaina batean lan egitea eskatzen bazaigu, zer gutxiago sustapen horretan laguntzea! Denok animatzen ditugu “.eus” trenera igotzen.”

7.- Galde-erreguak.

7.-Ruegos y preguntas.

... Olaltz Peon Ormazabal, EAJ/PNV: “Korreo elektronikoz jaso dugu Udalak partaidetza prozesu bat ireki behar duela eta gonbidatzen gaituela parte hartzera. Estimaten da gonbidapena aurrekontuko 200.000 euroko inbertsioari buruz. Baina guri gustatuko litzaiuke horrelako ekimen bat Udaletxeko batzorderen batean aurkeztea eta komentatzea. Uste dut Udaletxe barruan badagoela lan talde bat, Laia; lehenengo bilera egin zenean Alkateak pasa zigun bileraren akta, baina geroztik ez dugu jaso besterik. Gaur egun partaidetzak duen garrantziarekin komeniko litzateke batzorderen batean, beste alderdi politikoeekin batera, “partekatzen hastea”.”

... Alkateak. “Urte hasieran egin zen baina ez gara gehiago bildu. Laia teknikarien mahai bat da, interdepartamentalak diren proiektuak atera ahal izateko. Nik uste dut asmatu beharko dela nola garatu. Hitzegin dugu gure artean antolaketa eredia zein izan behar duen. Ados nago eta nik uste dut hitz egin beharko dugula jakiteko nola sartzten garen horretan. Ez dago aktarik, baina bai pendiente daukadala honen inguruko hausnarketa, ez dakigulako non kokatu..., edo departamentua izan behar duen. Udal asko gaude kezka honekin. Diputazioan ere, badago foro bat honen inguruan hitz egiteko, partaidetza esparrua nola eta non ebatzi behar den. Erantzuna oraindik ez daukagu.”

Besterik gabe, gaueko zortzietan bilera bukatutzat eman da, eta guztia nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las ocho de la noche, se da por finalizada la Sesión, de todo lo cual yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

ERANSKINA

FINANTZA IRAUNKORTASUNA EBALUATZEKO TXOSTENA KOMUNIKAZIOA UDALBATZARI

Administrazio izaera duten entitateen 2014ko behin-betiko aurrekontuak, lurreamendi egoitzaren 1/2014 kreditu aldaketa espedientearen ondoren, betetzen du 2014rako ezarritako zor publikoaren helburua, baina ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastuaren araua.

Aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastuaren araua betetzen ez duten entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin behar dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Hala ere, aurrekontu egonkortasunaren kasuan helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Jarraibidearen 3. Erregelari jarraituz, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari komunikazio bat aurkeztu daiteke Udaltzari, zirkunstantzia hori adierazita, kontuhartzaileak finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txostenarekin batera.

Gastu arauaren kasuan berriz, helburua ez betetzearen arrazoia ez da izan diruzaintzako gerakinaren erabilera.

Hala ere, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzeko jarraibideak onartzen duen 2013ko azaroaren 19ko Diputatuen Kontseiluaren Akordioaren 3. Erregelari jarraituz, gastuaren araua betetzen ez duten entitateek, planaren ordezkari komunikazioa aurkeztu diezaioke Udaltzari, kontuhartzaileak sinatua, finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, baina baldintza hauek betetzen badituzte:

- 2013ko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki positiboa izatea.
- 2014rako defizit eta zor helburuak betetzea.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

Administrazio izaera duten entitateen aurrezki garbia positiboa izan da 2013ko likidazioan (2.394.113,46 euro) eta diruzaintza kalkulatzen duten bi entitateek positiboa dute (Tolosako Udalak, 5.282.683,13 euro, eta lurreamendi egoitzak, 435.235,67 euro).

Eta 2014an beste bi helburuak betetzen dituzte: defizitaren helburua, kasu honetan diruzaintza gerakina erabiltzearen eragina kenduta, eta zorraren helburua.

Baldintzak betetzen direnez, kontuhartzaile honek ondorengo txostena egin du, Udalbatzari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

TXOSTENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Lurreamendi egoitzaren 1/2014 Kreditu aldaketarako espedientearen ondoren 2014ko behin-betiko aurrekontuak 2.348.871,16 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Tolosako Udalaren 4/2014 kreditu aldaketarako espedientearen ondoren, aurrekontuak 2.283.771,16 euroko defizita zuen. Beraz, lurreamendiren 1/2014 kreditu aldaketarako espedienteak 65.100,00 euroko defizita sortu du.

Plana ordezkatzeko baldintzak betetzeari buruzko egiaztapena

Defizit horren arrazoia diruzaintzako gerakinaren erabilera izan da. Kreditu aldaketa hau finantzatzeko diruzaintzako gerakinetatik 65.100,00 euro erabili dira, eta honen eragina kenduta, espedienteak ez du defizitarik sortzen.

Lurreamendiren 1/2014ko kreditu aldaketaren ondoren, hau da administrazio izaera duten entitateen egoera:

	Hasierako	Aldaketa	Aldaketa	Aldaketa	Aldaketa	Aldaketa
Egonkortasuna	Aurrekontua	1/2014	2/2014	3/2014	4/2014	1/2014
	(SEC) 2014	(SEC) 2014	(SEC) 2014	(SEC) 2014	(SEC) 2014	lurreamendi

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

Sarrerak Kap.1 - 7	31.239.150,00	31.894.321,73	31.894.321,73	31.954.404,73	32.463.216,73	32.487.616,73
Gastuak Kap. 1 - 7	29.374.850,00	32.934.675,89	32.931.475,89	34.067.475,89	34.746.987,89	34.836.487,89
Superabita / Defizita	1.864.300,00	-1.040.354,16	-1.037.154,16	-2.113.071,16	-2.283.771,16	-2.348.871,16
Diruzaintza Gerakinaren erabilera		1.918.043,79	1.918.043,79	2.994.960,79	3.165.660,79	3.230.760,79
Finantzaketa ahalmena	1.864.300,00	877.689,63	880.889,63	881.889,63	881.889,63	881.889,63

Diruzaintza gerakinaren erabileraren eragina kenduta, behin betiko aurrekontuak, azken kreditu aldaketaren espedientearen ondoren, 881.889,63 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Gastuaren araua

2013ko eta 2014ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa % 22 da, lurreamendiren 1/2014 kreditu aldaketaren ondoren.

Kalkuluak egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

	AURREKONTU
GASTU KONPUTAGARRIAREN BALORAZIOA (Kreditu aldaketa 4/2014)	BATERATUA
(lurreamendiren kreditu aldaketa 1/2014)	(SEC) 2014

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

-	
2013ko aurrekontu likidazioaren gastu ez finantzarioa (1-7 kap.)	26.134.551,45
2013ko aurrekontu likidazioaren interesak	-243.946,80
Finantzaketa lotua duten gastuak 2013an	-801.106,88
2013ko gastu konputagarria	25.089.497,77
2014ko gastu ez finantzarioa (1-7 kap.)	34.836.487,89
2014ko interesak	-283.200,00
SEC doiketak:	
-2014an inbertsio errealak besterenganatzeagatik	-642.000,00
-aurrekontuaren exekuzio mailarengatik	-1.200.768,94
Finantzaketa lotua duen gastuak 2014an	-1.995.117,63
Araudian egindako aldaketen eragina dirubilketa	-25.930,00
2014ko gastu konputagarria	30.689.471,32
Gastu konputagarrien bariazioa	22,32%
Diruzaintzako Gerakina erabiltzearen eragina	2.982.857,94
Portzentaian	11,89%
Gastu konputagarrien bariazioa Gerakinaren eragina kenduta	10,43%

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

Diruzaintzako Gerakina erabiltzearen eragina 2.982.857,94 eurokoa izan da egin diren kreditu aldaketa espedienteetan.

Honen eragina kenduta ere 2013 eta 2014ko gastu konputagarrien arteko bariozioa %10 da.

Plana ordezkatzeko baldintzak betetzeari buruzko egiaztapena

Lehendabiziko baldintza

Goien zerrendatutako entitateek aurrezki garbia positiboa izan dute 2013ko likidazioan (2.394.113,46 euro) eta diruzaintza kalkulatzeko duten bi entitateek positiboa dute (Tolosako Udalak, 5.282.683,13 euro, eta lurreamendi egoitzak, 435.235,67 euro).

Bigarren baldintza

Entitate hauek 2014rako zor helburua betetzen dute. Ondoko taulan xehatzen dira datuak:

FINANTZEN IRAUNKORTASUNA (Kreditu aldaketa 4/2014)	AURREKONTU
	BATERATUA (SEC) 2014
ZOR BIZIA 2014/12/31an	11.514.089
SARRERA Arruntak (1-5) kap. 2013ko likidazioa	27.273.121,69
ZOR BIZIA / SARRERAK (1 - 5) kap.	42,22%
MUGA	95,00%

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

Defizitaren kasuan, lehen ikusi dugun moduan, diruzaintza gerakina erabiltzearen eragina kenduta, helburua betetzen dute.

Finantza iraunkortasunari buruzko egiaztapena

lurreamendi egoitzaren 1/2014 kreditu aldaketa guztira 137.500,00 eurokoa izan da, honela banatuta:

Kreditu transferentziak 48.000,00

Kreditu gaikuntza 24.400,00

Kreditu gehigarriak 65.100,00

- sarrera berriak edo handiagoak: 0,00

- gastu orokorretarako diruzaintza gerakina: 65.100,00

Diruzaintza gerakina ondorengo gastuak egin ahal izateko erabiliko da:

	PARTIDA			Gastuei	Gastu
AZALPENA				lotutako	orokorretarako
	Org	Eko	Fun	gerakina	gerakina
Eraikinak		622.01	31380	0,00	31.000,00
Makineria		623.01	31380	0,00	900,00
Instalazioak		623.02	31380	0,00	3.700,00

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

Altzariak eta ekipamendua		625.01	31380	0,00	14.500,00
Informatika ekipamendua		626.01	31380	0,00	15.000,00
GUZTIRA :				0,00	65.100,00

Gastu hauek ez dira errepikakorrek eta ez dute Udalaren finantza iraunkortasuna konprometitzen.

Bestalde, entitate baten finantza iraunkortasunaren adierazle bat aurrezki garbia da.

Lehen adierazi den moduan, goien aipatutako entitateen aurrezki garbia 2.394.113,46 euro izan da 2013ko aurrekontuaren likidazioan, kontuak bateratu ondoren.

2014ko behin betiko aurrekontua kontutan hartzen badugu -44.266,00 eurokoa izango dela aurreikusten da, baina entitate bakoitzaren egoera desberdina da.

Kontuak bateratu aurretik, entitate bakoitzaren egoera hau da:

	Aurrezki Garbia
	2014
Udala	1.235.734,00
Iurreamendi	0,00

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.11.25

Erretengibel S.A.	0,00
Tolosa Lotzen S.A.	-1.280.000,00

Udalaren kasuan, aurrezki garbia sarrera arrunten %5,3 da. Normalean, ratio hau %2 eta %5 arteko tartean egotea gomendatzen da, gutxienez.

Iurreamendi eta Erretengibelen kasuan aurrezki garbia 0 da. Iurreamendi egoitzan ez dira aurreikusten inbertsio berririk eta Erretengibel S.A.n Udalaren ekarpenekin eta saltzeko dituen etxebizitzekin finantzatzen dira.

Tolosa Lotzen S.A.k berriz, aurrezki garbia negatiboa du, Laboral-Kutxaren mailegua (1.305.000 euro) osorik itzuli delako 2014an. Gastu hau ez da hurrengo ekitaldietan errepikatuko.

ONDORIOAK

Administrazio izaera duten entitateen kontu bateratuen 2014ko behin-betiko aurrekontuak, Iurreamendi egoitzaren 4/2014 kreditu aldaketaren ondoren, aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastuaren araua betetzen ez badu ere, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da, bateratze mailan, entitate hauen egoera finantzarioa iraunkorra dela eta aipatutako urraketaren ondorioz ez dela konprometituta geratzen.

Tolosa, 2014ko azaroaren 20a

Paulino Alonso Eraso
Behin-behineko kontuhartzailea